## FESTAK NOIZ IRITSIKO ZAIN HERRI ASKOTAN

Abuztuan ospatzen dituzte jaiak eskualdeko herri gehienetan; egitarau oparoak dituzte prestaturik › 2-3

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** .info

Larunbata
2008-07-26

VI.URTEA 1.496.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO





Nagusien mailan Joseba Jauregik irabazi zuen krosa, gizonezkoetan, eta emakumezkoetan, Aitziber Ibarbiak. A. IMAZ

# SANTIO EGUN HANDIA IGAROTA, EUSKAL JAIA OSPATZEKO PREST

**VILLABONA** Jaien bigarren eguna, Santio Eguna izan zen atzokoa; Herri Krosean, Aitziber Ibarbiak eta Joseba Jauregik irabazi zuten 4-5

# Otaegi eta Mujika txapela lortzeko lehian ariko dira gaur

**AIZKORA** Zizurkildarrak eta ibartarrak II. Mailako Gipuzkoako Txapelketa dute jokoan 6



Jubilatu elkarteko kideak bazkaltzen, atzo, ermitaren ondoan. N. GARZIA

# Egun polita igaro dute Leitzako jubilatuek Santa Krutz ermitan 7






# IRISTEAR DIRENAK

**Jaiak»** Altzo, Larraul, Berastegi, Leitza, Ikaztegieta, Areso, Albiztur, Hernialde, Goiatz eta Baliarrainen egun gutxi falta dira festa giroan murgiltzeko; herritarrak irrikaz egongo dira urteko egun garrantzitsuenetan prestatu dituzten ekitaldiez gozatzeko.

» EGITARAUAK

## ALTZO SAN INAZIOAK

**Uztailak 30, asteazkena**
- **18:00.** Tipulari ongietorria.
- **Ondoren.** Dantza Artea dantza taldearekin eta Ibarrako Alurr taldeko gaztetxoen emanaldia.
- **20:30.** Zikiro jatea.
- **00:00.** Dantza eresia eta Kupela goizaldera arte.

**Uztailak 31, osteguna (San Inazio Eguna)**
- **09:00.** Goiz eresia.
- **10:00.** Meza nagusia.
- **11:30.** XVII. Altzoko Igoera (Calcinor saria) txirrindulari proba.
- **18:30.** Herri kirolak. Ondoren, sagardo dastaketa. Gauean, Laiotz taldea.

**Abuztuak 1, ostirala (Umeen Eguna)**
- **11:00.** Jubilatuen hamaiketakoa.
- **15:30.** Mus txapelketa azkarra.
- **18:30.** Herritarren arteko pelota txapelketaren finalak.
- **Ondoren.** Bertsolariak: Egaña, Lizaso, Zubeldia, Lujanbio, Barandiaran eta Iturriaga.
- **23:30.** Unsain taldea.

**Abuztuak 2, larunbata**
- **11:30.** Patata Tortila Lehiaketa.
- **12:00.** Txakoli probaketa. Tartean, Toka txapelketa herrikoia.
- **15:30.** Tiro Platoa.
- **17:00.** Pelota frontoi berrian.
- **Ondoren.** Motozerraz egurra lantzea.
- **21:00.** Zahagi ardoa.
- **Gauean.** Ansorregi.

## LARRAUL SAN ESTEBAN JAIAK

**Abuztuak 1, ostirala**
- **11:00.** Puzgarriak frontoian.
- **13:00.** Haurren Duatloia.
- **14:00.** Haurren Bazkaria.
- **16:00.** Puzgarriak.
- **19:00.** Txupinazoa eta Pello Joxeperen jeitxiera.
- **21:00.** Zikiro afaria.
- **23:00.** Nunbait eta Lain.

**Abuztuak 2, larunbata**
- **12:00.** Pintxo txapelketa.
- **12:30.** Sagardo dastaketa (Aburuza, Zabala, Gaztañaga, Sarasola).
- **16:00.** Mus txapelketa.
- **17:00.** Goitibehera erakusketa.
- **19:00.** Antzerkia.
- **21:00.** Herri afaria.
- **23:00.** Laket taldea.
- **Goizaldean.** Txokolatada.

**Abuztuak 3, igandea**
- **10:00.** Esku pilota haurrentzat.
- **11:00.** Meza Nagusia.
- **11:30.** Hamaiketako herrikoia .
- **12:30.** Jolasak eta buru handiak.
- **18:00.** Herri kirolak.
- **19:00.** Bertso saioa: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Iker Zubeldia eta Beñat Gaztelumendi. Gai jartzen, herriko bertso taldea.
- **Ondoren.** Sardina jatea eta kañaberaren neurketa.
- **20:30.** Ansorregi eta Larrañaga.

## LEITZA SANTIBURTZIOAK

**Abuztuak 2, larunbata (Reparto Eune)**
- **12:30.** Poteoa Gaiteroakin.
- **14:00.** Eskalarin bazkaria.
- **16:00.** Auzoz auzo Plazaola aldizkariaren banaketa.
- **17:00.** Txirrindulariak.

**Abuztuak 3, igandea (Umen Eune)**
- **08:00.** Diana Txisturaliekin.
- **09:00.** Korporazio txikiak udal ordezkariekin gosalduko du.
- **10:00.** Meza. Ondoren Pilota Eskolako gazteak ariko dira plazan.
- **11:30-14:30 eta 16:30-18:30.** Puzgarriak eta jokoak.
- **18:30.** Aurrerako dantzari txikien ikuskizuna eta umeen inguruxo irekia plazan. Ondoren gurpildun zezenak plazan.
- **20:00-00:00.** Buruhandiak eta Trikidantz.

**Abuztuak 9, larunbata**
- **11:30.** Koadrilen arteko Herri Kirolak. Ondoren, Luntxa.
- **14:30.** Bazkaria Torren.
- **17:30.** Futbol txapelketa.
- **18:30.** Kalejira errebeindikatiboa. Ondoren Gaztetxean ekitaldia eta atsaldekoa.
- **00:00.** Gaztetxean kontzertuak: Gualitxo eta Rifter.

**Abuztuak 10, igandea (Pesta Bezpera)**
- **12:00.** Euskal Herriko Sega Txapelketako Finala.
- **14:30.** Jubilatuen bazkaria
- **18:00.** Txupinazoa eta Plazaola aldizkariko azalaren egileari saria. Ondoren, txaranga, txistulariak erraldoiak, buruhandiak...
- **22:00.** Suzko zezena.
- **00:00.** Tximeleta.
- **00:30.** Incansables.

**Abuztuak 11, astelehena (Pesta Eune)**
- **08:00.** Diana Txistulariekin.
- **09:00.** Entzierroa eta behiak, eta gurpildun zezenak.
- **10:30.** Meza eta hamaiketakoa.
- **12:00.** Aurrerako Ezpatadantza. Ondoren, afizionatuen arteko pilota partiduak.
- **13:00.** Incansables txaranga.
- **18:00.** Zezenak Plazan.
- **19:00.** Herri kirolak.
- **20:30.** Buruhandiak Incansables txarangakin.
- **22:00.** Suzko Zezena
- **00:00.** Gaubela.
- **00:30.** Incansables Txaranga.

**Abuztuak 12, asteartea**
- **08:00.** Diana Txistulariekin.
- **09:00.** Entzierroa eta behiak eta gurpildun zezenak.
- **12:00.** Txotxongiloak eta aparra.
- **13:00.** Incansables txaranga.
- **17:30.** Zezenak Plazan.
- **18:30.** Aurrerako Dantzariak Plazan eta goxokiak banatuko dira
- **19:30.** Incansables txarangarekin poteoa. Buruhandiak.
- **20:00.** Pilota partida profesionala Amazabalen.
- **21:30.** Suzko Zezena.
- **22:00.** Herri aparia plazan.
- **01:00.** Perfusion perkusio taldea.
- **02:00.** Incansables Txaranga.
- **03:00.** Leitzako ligatzeko Ingurutxoa Plazan.

**Abuztuak 13, asteazkena**
- **08:00.** Diana Txistulariekin.
- **09:00.** Entzierroa eta behiak eta gurpildun zezenak.
- **11:30.** Paella lehiaketa eta Aurrerako pilotari gazteen partidak.
- **13:00.** Incansables txaranga.
- **18:00.** Zezenak Plazan.
- **19:00.** Zubeldia, Egaña, Lujanbio, Arzallus, Silveira eta Luze. Goxokiak eta musika eskolakoak.
- **19:30.** Buruhandiak aterako dira Incansables txarangarekin.
- **22:00.** Suzko zezena.
- **00:00.** Garraxi taldea plazan.
- **00:30.** Incansables txaranga.

**Abuztuak 14, osteguna (Gazte Eune)**
- **08:00.** Diana Txistularikin.
- **09:00.** Entzierroa eta behiak, eta gurpildun zezenak.
- **10:30.** Gaztetxeen topaketa.
- **11:30.** Goitiberak.
- **13:00.** Incansables txaranga.
- **14:30.** Bazkaria gaztetxean.
- **17:00.** Gazteen jokuak plazan.
- **18:00.** Zezenak Plazan.
- **19:00.** Breakdance emanaldia plazan.
- **19:30.** Buruhandiak eta Incansables txaranga aterako dira.
- **22:00.** Suzko zezena.
- **00:30.** Space Mukaki taldea.
- **01:30.** Esne-Beltza taldea.

**Abuztuak 15, ostirala**
- **08:00.** Diana Txistulariekin.
- **09:00.** Entzierroa eta behiak, eta gurpildun zezenak.
- **12:00.** Herri kirolak plazan.
- **13:00.** Incansables txaranga.
- **14:30.** Aurrerakoen bazkaria.
- **18:00.** Ezkonduen eta bikoteen entzierroa eta zezenak plazan.
- **19:00.** Ezkondu eta bikoteen Ingurutxoa plazan, ondoren buruhandiak Incansables, musika eskolakoen saioa eta goxokiak.
- **21:00.** Presoen aldeko kalejira.
- **22:00.** Preso eta errefuxiatuen aldeko herri afaria Torren.
- **22:00.** Suzko zezena.
- **00:00.** Mariatxiak. Ondoren, incansablesek *pobredemie* plazatik aterata.

## BERASTEGI SAN LORENTZOAK

**Abuztuak 7, osteguna**
- **12:30.** Suziria, txistulari eta buru-handiekin.
- **17:00.** Herri kirolak.
- **19:00.** Frontenis txapelketa.
- **20:30.** Perku-poteoa.
- **21:30.** Herri-afaria.
- **23:00.** Modesto.

**Abuztuak 8, ostirala**
- **09:00.** Goiz deia.
- **10:00-13:00.** Puzgarriak.
- **16:00.** Futbol-txapelketa.
- **17:30.** Potxin eta patxin.
- **19:00.** Haurren dantza saioa.
- **22:30.** Antzerkia. Ondoren, Tximeleta taldea.

**Abuztuak 9, larunbata**
- **09:00.** Goiz deia.
- **11:00-13:00.** Patata tortila txapelketa. Bitartean, umeentzat Gorriti bere abereekin. Ondoren, tortila dastaketa.
- **14:00.** Koadrilen bazkaria.
- **15:30.** Plater tiraketa herrikoia.
- **17:30.** Koadrilen arteko jokuak. Ondoren, sagardo dastaketa.
- **19:30.** Toka txapelketa herrikoia.
- **22:30.** Herriko dantza latino emanaldia.
- **00:00.** Laiotz.

**Abuztuak 10, igandea**
- **09:00.** Goiz deia.
- **09:30.** Meza San Lorentzon. Ondoren, hamaiketakoa.
- **11:30.** Meza nagusia.
- **12:00.** Pelota partiduak.
- **17:30.** Aitor Mendiluze eta Jon Maia bertsolariak eta Markox Landa aita-semeak aho soinuarekin. Ondoren, San Juan dantza eta herriko neska-mutilen dantza saioa.
- **23:00.** Abiba diskojaia.

**Abuztuak 11, astelehena**
- **09:00.** Goiz deia.
- **12:30.** Pelota partiduen finalak.
- **17:30.** Motozerra txapelketa. Ondoren, dantza-soka.
- **22:30.** Alurr dantza taldea.

## IKAZTEGIETA SAN LORENTZOAK

**Abuztuak 7, osteguna (Preso eta iheslarien aldeko Eguna)**
- **Egun osoan.** AHTren aurkako erakusketa.
- **17:00.** Hitzaldia.
- **19:00.** Herri kirolak.
- **21:00.** Afaria.
- **23:00.** DJ Bull.

**Abuztuak 8, ostirala (Haurren Eguna)**
- **11:00.** Txupinazoa.
- **Ondoren.** Haur danborrada.
- **12:00-14:00.** Haurrentzako zirkuaren mundua: Keima taldea.
- **14:00.** Adinekoen bazkaria.
- **17:00.** Mus eta Toka.
- **16:00-19:00.** Haurrentzako zirkuaren mundua: Keima taldea.
- **20:00.** Sardina jatea.
- **23:00.** Kontzertua: Feos pero majos, Aketza eta Txapelpunk.

**Abuztuak 9, larunbata (Koadrilen Eguna)**
- **11:30-13:00.** Haurren parkea.
- **13:00.** Haurren bazkaria.
- **14:00.** Koadrilen bazkaria.
- **15:30-18:00.** Plater jaurtiketa.
- **15:30-18:30.** Haurren parkea.
- **Ondoren.** Aparraren festa.
- **19:00.** Mulambo. Ondoren, Mozorro gaua.
- **23:00.** Imuntzo eta Beloki,

## Iragarki laburrak

**ALOKAIRUAN**
- **Villabona.** Bi pixukide behar dira Villabonan etxebizitza konpartitzeko. 200 euro hilabeteko. Etxea egoera onean dago. Interesatuek dei dezatela ondorengo telefono zenbakira : 667 01 48 20.

**SALGAI**
- **Etxebizitza.** Intza. Herriko plazan, 157 metroko etxebizitza garajearekin estreinatzeko salgai. Ohiturak jarraituz eraberritua, ezinduentzako egokitua. Landetxea jartzeko aukera. 250.000 euro. 628 03 07 29 / 948 61 06 39.

**Abuztuak 10, igandea (San Lorentzo Eguna)**

- **11:15.** Meza.
- **Ondoren.** Herriko dantzariak.
- **13:00.** Txakolin dastaketa.
- **17:30.** Pilota partidak.
- **21:00.** Herri (bertso) afaria: Maddalen Lujanbio, Amets Arzallus eta Sustrai Colina.
- **23:00.** Erromeria, Urarte taldea.

## ARESO AMABIRJINAK

**Abuztuak 14, osteguna. (Pesta Bezpera)**

- **18:00.** Etxafuegoa. Ondoren kalejira herriko trikitilariekin.
- **18:30.** Haurrentzat jokuak.
- **19:00.** Tortilla patata lehiaketa.
- **20:30.** Herri afaria plazan.
- **23:30.** XVIII. Mus txapelketa.

**Abuztuak 15, ostirala. (Ama Birgin eguna)**

- **09:30.** Diana herriko txistulariekin.
- **11:00.** Meza Nagusia. Herriko dantzarien arkua. Hamaiketakoa.
- **12:00.** Herriko dantzarien saioa.
- **13:00.** Pilota partiduak plazan.
- **18:30.** Aizkolariak plazan. Ondoren Aresoko Ingurutxoa.
- **20:00.** Giro Arte dultzaineroak.
- **00:00.** Gaubela taldea.

**Abuztuak 16, larunbata (Koadrilen eguna)**

- **09:30.** Diana herriko trikitilariekin.
- **11:00.** Impresentables txaranga.
- **15:00.** Paellada erraldoia.
- **17:30.** Jokuak.
- **18:30.** Aizkolariak.
- **21:30.** Herri aparia plazan.
- **00:00.** Tximeleta eta DJ Bertso.

**Abuztuak 17, igandea**

- **09:30.** Diana herriko txistulariekin. Goizean argazki erakusketa.
- **14:00.** Herri bazkaria plazan, Lizaso eta Zubeldia bertsolariekin.
- **18:00.** Bertso-pilota partidua.
- **19:00.** V. Sagardo dastaketa. Bitartean, V. txapel jaurtiketa.
- **Ondoren.** Mus, pintxo eta txapel tiraketako sari banaketak.
- **21:00.** Donostiko Eskola dantza taldearen emanaldi ikusgarria.
- **00:00.** Jalisko Band taldea.

**Abuztuak 18, astelehena**

- **09:30.** Diana herriko trikitilariekin.
- **11:00.** Puzgarriak, quad motoak eta jokuak plazan.
- **13:00.** Pilota partiduak.
- **16:00.** Plater tiraketa herrikoia.
- **19:15.** Patxin eta potxin.
- **20:00.** Beste Bat taldea.
- **22:00.** Bokadilo jatea.
- **00:00.** Beste Bat. Atsedenaldian *axuri lutoa*.

## ALBIZTURKO JAIAK

**Abuztuak 14, osteguna**

- **12:00.** Jaien hasiera. Kalejira buruhandi eta txistulariekin.
- **12:30-14:30 eta 16:30-19:30.** Zezen mekanikoa eta giza futbolina.
- **14:00.** Gazte-bazkaria.



Herriko jaietan oso ohikoak izaten dira buru handiak. Baita dantzari txikiak ere. N. URBIZU

- **18:00.** Triki poteoa. Ondoren, koadrilen arteko jokuak.
- **19:30.** Sagardo txapelketa.
- **20:30.** Meza eta Agur Erregina.
- **23:00.** Bide Batez taldea.

**Abuztuak 15, ostirala**

- **Goizean.** Albizturko txistulariak.
- **11:15.** Meza Nagusia.
- **Ondoren.** Pilota partidak.
- **18:30.** Herri kirolak, Landatarrek alaituta.
- **22:00.** Bertso jaialdia: Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi, Xabier Paia eta Iker Zubeldia bertsolariekin, eta gai jartzailea Unai Elizasu. Ondoren: Arandia anaiekin eta Malbadi eta Izaskun trikitilariekin erromeria.

**Abuztuak 16, larunbata**

- **12:00.** Toka herrikoen artean.
- **12:00-14:00 eta 16:00-18:00.** Gaztelu puzgarriak.
- **16:00.** Ume jolasak.
- **21:00.** Herri afaria (Zikiro jatea izango da).
- **23:00.** Elustondo anai-arrebak.
- **Goizaldean.** Txokolatada.

**Abuztuak 17, igandea**

- **11:15.** Meza Nagusia. Ondoren, pilota partidak eta hamaiketakoa.
- **19:00.** Bertso pala.
- **21:00.** Barrikotea eta postre txapelketa.
- **22:00.** Laja II.a eta Narbaiza trikitilariekin erromeria.

## HERNIALDE ANDRE MARI JAIAK

**Abuztuak 14, osteguna**

- **17:00.** Festen hasiera.
- **18:00.** Frontesis txapelketa.
- **20:30.** Txupinazoa eta suziriak.
- **21:00.** Bertso Afaria, Amaia Agirre eta Sustrai Kolinarekin. Jarraian Saioa eta Aitziber.

**Abuztuak 15, ostirala**

- **12:30.** Meza Nagusia. Jarraian hamaiketako herrikoia.
- **18:30.** Herriko Dantzarien saioa.
- **22:30.** *Sommer jaunaren istorioa* antzezlana. Jarraian Saioa eta Aitziber trikitilariak.

**Abuztuak 16, larunbata**

- **Goizean.** Suziri eta buruhandiak.
- **11:30.** Poxpolo eta Mokolo.
- **14:00.** Umeen bazkaria.
- **19:00.** Frontenis txapelketako finala.
- **Iluntzean.** lehiaketa gastronomikoa. Jarraian Zagi-ardoa, eta gauean, Unsain Anaiak.

**Abuztuak 17, igandea**

- **12:30.** Meza Nagusia. Jarraian XVII.Sagardo dastaketa Alabier eta Saioa trikitilariekin.
- **Ondoren.** Herri bazkaria.
- **18:30.** Apustua (segan eta aizkoran) herritarren artean.
- **Ondoren.** Festa amaierako trikitixa Alabier eta Saioarekin.

## GOIATZ ANDRA MARI JAIAK

**Abuztuak 14, osteguna**

- **14:00.** Txupinazoa.
- **17:00.** Ume jolasak.
- **20:00.** Meza.
- **21:00.** Herri afaria Peñagarikao eta Lizaso bertsolariekin.
- **Ondoren.** Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak.

**Abuztuak 15, ostirala**

- **11:00.** Meza Nagusia.
- **Ondoren.** Hamaiketakoa.
- **12:00.** Pilota partidak.
- **19:00.** Sagardo dastaketa.
- **23:00.** Izer eta Alabier.

**Abuztuak 16, larunbata**

- **16:00.** Mus Txapelketa.
- **23:00.** Bertsolariak: Arzallus, Kolina, Lujanbio eta Mendiluze.
- **Ondoren.** Bide Batez trikitilariak.

**Abuztuak 17, igandea**

- **12:00.** Meza Nagusia.
- **Ondoren.** Herriko dantzariak eta poteoa.
- **19:00.** Herri kirolak.
- **23:00.** Saioa, Alabier eta Lutxurdio trikitilariak.

## BALIARRAIN ANDRE MARI JAIAK

**Abuztuak 14, osteguna**

- **19:00.** Txupinazoa.
- **19:30.** Patata Tortila lehiaketa.
- **Ondoren.** Zahagi ardoa.
- **22:30.** Imitatzaileak: Iñigo Perurena eta Iñigo Etxenike.
- **Ondoren.** Izer, Alabier eta Lutxurdio taldea.

**Abuztuak 15, ostirala**

- **11:00.** Meza Nagusia.
- **12:00.** XLVI. Txirrindulari Igoera Jexux Nazabalen XX. oroitzapenean. Ondoren Trikitixa.
- **18:00.** Euskal Herriko Lokotx Biltze Txapelketa eta 2. mailako Euskal Herriko Trontza Txapelketa.
- **23:00.** Ainhoa Ansa eta Jagoba Astiazaranen eskutik *Piano bat bertsotan* kantaldia, eta ondoren Unsain taldea goizaldera arte.

**Abuztuak 16, larunbata**

- **17:00.** Poxpolo eta Mokolo.
- **19:00.** Trikitxoootx! Urarte taldearekin, ta txiritik saardoa ase arte!
- **Ondoren.** Sagardo dastaketa.
- **23:00.** Mozorro gaua.
- **Jarraian.** Urarte taldea.

**Abuztuak 17, igandea**

- **11:00.** Meza Nagusia.
- **Ondoren.** Hamaiketakoa.
- **12:00.** Toka Txapelketa eta herri krosa.
- **17:00.** Ume jolasak: *Musika tresnen fabrika* tailerra.
- **21:00.** Herri afaria, eta ondoren, Bide Batez taldea.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko komunikabide batek
Kazetaritzan edota Euskal Filologian
lizentziatuak
edo ikasleak behar ditu
lan poltsa osatzeko.
Interesatuek deitu 661 67 88 17 telefono zenbakira

# Goizean kirolariak eta arratsaldean ikuskizunak eta Gazte Eguna






170 korrikalari irten ziren Herri Krosean. Amasan pilota partiduak jokatu zituzten, palaz eta eskuz. ASIER IMAZ

**Amasa-Villabona** » Iluntzean Preso eta Errefuxiatuen gaua ospatu zuten enkartelada ixilaz eta afari herrikoiarekin.

ASIER IMAZ - NAIARA GARZIA

Santio jaiak hasi besterik ez dira egin eta bat baino gehiago atzo leher egina aurkitzen zen. Horretarako arrazoiak bazituzten, baita ere indarberritu eta aurrera jarraitzeko aukera ere, Santioak ez baitira alperrik eskualdeko jairik luzeenak.

### Goizean kirolari mota ugari

Pilotariak eskuz eta palan; korrikalariak distantzia laburrean eta gautxoriak distantzia luzean. Jendarte anitza ikus zitekeen Amasa-Villabonan atzo goizean. Jaiei bizia emateagatik denek badute meritua.

09:00etako sokamuturraren ostean, 11:00etan XXVIII. Herri Krosa hasi zen. Lehenik benjaminak irten ziren irteera eta helmuga puntutik. Ondoren alebinak, infantilak eta kadeteak. Jubenilak eta nagusiak batera irten ziren, nahiz eta batzuk eta besteek eginiko ibilbidea desberdina izan. Guztira 170 korrikalarik hartu zute parte Herri Krosean.

Nagusien artean, 7.500 metroko ibilbidea Joseba Jauregi tolosarrak egin zuen azkarren; 26 minutu eta 45 segundotan. 32 minutu eta 28 segundo behar izan zituen Aitziber Ibarbia zizurkildarrak, lehen emakumeak.

Korrika saioaren ondoren pilota partidak jokatu ziren Amasako pilotalekuan. Bi final jokatu ziren bertan: palaz binakako herriko txapelketa eta eskuz binakako afizionatuena. Iñaki Sarasua eta Jokin Txapartegik 35-33 irabazi zuten pala txapelketa Pello Yuberos eta Juan Karlos Urdanpiletaren aurka. Eskuz Gereta-Angulo izan ziren txapela Arabara eraman zutenak. Finalean Goikoetxea-Esnaola bikotea 17an utzi zituzten.

### Arratsaldean ere, ekitaldiak

17:30etik aurrera Oinargi dantzari txikiek emanaldia eskaini zuten eta 19:00etan Atari Bizi lehiaketaren sariak banatu zituzten. Lehenengo saria kale Berriko 54 zenbakiko lehenengo pisuko Maria Jesus Goiak irabazi zuen, bigarrena kale bereko bosgarren etxeko lehen pisuko D ateko Maria Jose Sanchezek eta Alberto Alegriak eta hirugarrena kale Nagusiko 48. etxeko lehenengo pisuko Juli Aldazek. Ondoren, sokadantza dantzatu zuten.

### Beste hainbat ekitaldi

Atzo Gazte Eguna eta Preso eta Errefuxiatuen gaua ere ospatu zituzten Villabonan.

Gazte Eguna kafe eta pastekin hasi zuten Berdura plazan. Orkestra Nacional taldearekin poteoan ibiltzeko ondoren. 21:00etan pintxo dastaketa egin zuten eta gauean kontzertua egon zen plazan.

Preso eta Errefuxiatuen gauean *Villabonako Jaietan gurekin nahi ditugu* lelopean enkartelada ixila egin zuten. Ondoren, herri afaria eta herriko preso eta errefuxiatuei omenaldia.

### » EGITARAUA

**Uztailak 26, gaur**

- **08:30.** Diana Loatzoko dultzaineroekin.
- **09:00.** Sokamuturra Larrean Loatzoko dultzaineroek alaituta.
- **09:00.** Plater Tiraketa Oindo mendian.
- **10:00.** Xake jokua Berdura plazan.
- **11:00.** Erraldoi eta buruhandiak Loatzoko dultzaineroekin.
- **12:00.** Haurrentzat tailerra eta jolas parkea Txistularien plazan.
- **22:00.** Blues emanaldia Reverendos taldearekin Zaharren Biltokiaren ondoan.

**Euskal Jaia**

- **16:30.** Zanpantzarrak herrian zehar.
- **17:30.** Sagardo eta pintxo dastaketa plazan.
- **18:15.** Colla Vella castells taldearen emanaldia plazan.
- **19:30ean eta 00:00etatik aurrera.** Erromeria Tapia eta Leturiarekin plazan.
- **21:00.** Bildotsa burruntzian plazan.

AMASA
Okindegia-Kafetegia
K/Berria • Villabona • 943 69 38 31

PELU
Ileapaindegia - estetika
Errota 1 behea esk.
VILLABONA • Tel.: 943 696 292



ondo pasa!
Erniobea 3
Billabona
Tel.: 943 69 33 75





Maria Jesus Goiak irabazi zuen Atari bizi lehiaketa. N. GARZIA



Villabonako Oinkari dantza taldeak sokadantza dantzatu zuen. N. GARZIA



Jose Mari Gorrotxategi konpiteroa bere argazki erakusketako lan batzuen aurrean, Aranburu jauregian . JOXEMI SAIZAR

# Bisita gidatuak udaran Gorrotxategiren museoa eta argazki erakusketetan

**Tolosa** » Irailaren 6ra arte bisitatu ahal izango dira konfiteroak eta Linazasorok ateratako argazkiekin erakusketak.

A. IMAZ

Aranburu Jauregiko erakusketak udan zabalik egongo dira. Bertan Jose Mari Gorrotxategi gozogileak eta Iñaki Linazasorok aterako argazkiak egongo dira ikusgai. *55 urte argazkitan* erakusketa da Gorrotxategi gozogileak bere bizitzan zehar ateratako argazkien erakusketaren izena. Iñaki Linazasorok ateratako argazkien aukeraketa, hau da, Aranburun ikusgai jarri duen erakusketaren izena, berriz, *Begikoak* da, bere begikoenak, edo kuttunenak aukeratu baititu.

Argazki erakusketak irailaren 6ra arte bisitatu ahal izango dira. Ordutegiei dagokienez, Aranburu jauregia astelehenetik larunbatera irekita egongo da, 17:30etik 19:30era. Sarrera doakoa izango da.

### Bisita gidatuak

Aranburu Jauregiko erakusketen bisita gidatuak Gorrotxategi Museoarekin batera egin ahal izango dira ordutegiari dagokionez: astelehenetik larunbatera eta 10:00etan edota 16:00tan. Igandeetan berriz 10:00etan egingo dute bisita gidatua bertara joan nahi duenaren gozamenerako. Irteerak beti ere Tolosaldea Tour turismo bulegotik egingo dira, hau da, Santa Maria Plaza, 1 helbidetik. Bisita gidatuen prezioa 1,5 eurokoa izango da.

## Laburrak

### Lokotx biltze finalerako autobusa gaur 16:30ean

**BALIARRAIN** ● Gaur plazatik Mendarorako autobusa aterako da Gipuzkoako lokotx biltze eta aizkora txapelketako finalera joateko 16:30ean abiatuta. Bidaia egin nahi duenak 616 634 909 (Bixente Zubeldia) eta 649 019 440 (Manex Zubeldia) telefono zenbakietara deitu beharko du.

### Zikiro afarirako txartelak igandea baino lehen

**LARRAUL** ● Jaietan egingo den zikiro afarirako txartelak Goiz-Argi jatetxean eta udaletxean egongo dira salgai. 20 euroko prezioa dute eta txartelak erosteko azken epea, bihar, igandea, izango da. Mahaiak jarri eta zerbitzatzen lagundu nahi duenak Katillutxulon ditu izena emateko zerrendak.

### Plazako buruz buruko txapelketaren finalerdiak

**LEITZA** ● Plazako binakako txapelketa joan den larunbatean amaitu eta egun berean buruz burukoa hasi zen. Gaur final-laurdenak jokatuko dituzte, 17:00etatik aurrera, eta datorren asteburuan, finalerdiak. Binakako txapelketa Gartziak eta Larraiak irabazi zuten Zeballosen eta Iriarteren aurka.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Soldadu kalean, Kale Nagusian eta Martin Jose Iraola kalean.
Salgai (Legorreta eta Iruran). Etxebizitza eraberritzeko.
Salgai. Garajeak. San Frantzisko eta Amarotzen (Tolosa) eta Idoiagan (Ibarra).
Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdigunean.
Alokatzeko (Tolosa). Etxebizitza San Frantziskon.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak, San Frantziskon, Araba etorbidean eta Batxiler Zaldibian.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
...ETA ORAIN PROBIGURRAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

berria bekak 2008
Norentzat:
• Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
• Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat
Kazetaritza arloa: 8 beka, horietako bat bideo informatiboak lantzeko
Ezaugarriak:
• 9 hilabeteko iraupena, urritik ekainera
• Astean lau eguneko jarduna
• 6.255 euroko diru laguntza
• BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkaritzetan
Zuzenketa-itzulpengintza arloa: beka bat
Ezaugarriak:
• 12 hilabeteko iraupena, urritik irailera
• Astean lau eguneko jarduna
• 8.340 euroko diru laguntza
• BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian
Eskaerak aurkezteko epea: 2008–09–08
Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragai




Joseba Otaegi eta Jexuxmari Mujika bigarren mailako Gipuzkoako Txapelketaren finalean. JON URBE/IÑIGO TERRADILLOS

# Joseba Otaegi eta Jexuxmari Mujika txapelaren borrokan

**Aizkora »** Zizurkildarrak eta ibartarrak gaur jokatuko dute Bigarren Mailako Gipuzkoako Aizkolarien Txapelketa.

ASIER IMAZ

Gipuzkoako II. Mailako Aizkora Txapelketaren finala gaur jokatuko da Mendaron (Gipuzkoa) 18:00etan.

Kanporaketa sailkapena ikusiz gero, esan liteke bi aizkolariren artean egongo dela txapela. Aizkolari hauek Joseba Otaegi zizurkildarra eta Jexuxmari Mujika ibartarra dira.

Finalean, hala eta guztiz ere, hutsegite txikiena garesti ordaindu ko dute; Joxe Ugarteburu, Josefelix Zubizarreta, Joxemari Telletxea eta Aratz Mugertza zain egongo baitira.

Lehen postua lortzen duena Gipuzkoako Lehen Mailara igoko da.

### Finaleko lana

Sailkapen fasean bi kanaerdiko eta bi 60 ontzako lau pago enbor ebaki behar izan zituzten aizkolariek. Txapelaren lehian lan gehiago egin beharko dute sei finalistek: lau kanaerdiko eta bi 60 ontzeko moztu beharko dituzte.

### Bi protagonisten hitzak

Jexuxmari Mujikak zizurkildarra «oso indartsu» ikusten duen arren, finala jokatu aurretik ez du etsi nahi: «sailkapen faseko emaitzak ikusi ondoren ondo aurkitzen naiz, iragan urteko denbora hobetu egin bainuen. Lan honetarako ondo ikusten dut nere burua. Otaegi berriz oso puntu onean ikusten dut. Aurkari gogorra izango da eta ez finalean bakarrik, aizkoran zer esana emango du horrela jarraitzen badu».

Joseba Otaegik txapela Mujika, Ugarteburu eta bere artean dagoela iritzi du, «beti ere kontu handiarekin, huts egiten baldin badugu hor egongo baitira besteak». Urduritasuna baino tentsioa izaten omen du plazan eta horrek «entrenamenduetan baino puntu bat gehiago ematen dit, gustura ibiltzen naiz plazan». Denek faboritotzat jotzen dutela aipatzean berak ez du hain argi: «irabaziko dudan edo ez lanak bukatuta esatea hobe izango da».

Merezi duenak irabaz dezala.



Ibartarrak leitzarren zain Ibarrako Gaztetxearen aintzinean. A. IMAZ

# Desafiora ez zen leitzarrik agertu baina bada deialdi berria

**Bartoloak »** Eskualdeko edozein herriri bota diote desafioa ibartarrek eta uztailaren 30ean zain egongo dira Gaztetxean.

A. IMAZ

Hitzordua 20:00etan jarria zegoen baina ez zen leitzarrik agertu. Desafioa ibartarrek luzatu zuten baina Leitzatik ez zen inor Gaztetxera agertu herenegun. Ondorioa: «leitzarrek parrandarako bakarrik dute abilidadea. Leitzeko festetan Torrean txanpaina edango dugu».

### «Eskualdeko edozein herriri»

Ibartarrek botatako desafioak leitzarren aldetik erantzunik jaso ez zuela ikustean, ibartarrak berobero, eskualdeko edozein herriri bota zioten desafioa: «eskualdeko herriren baten aurka lehiatu nahiko genuke orain jaietan. Uztailaren 30ean, asteazkenean, Ibarrako Gaztetxean zain edukiko gaituzte baldintza guztietan hitz egiteko. Herri bat baino gehiago etorriko balitz, denon artean jokatuko genuke».

### Non, noiz, nola eta zergatik

Ibarrako Aldarrikapen Ekitaldietan edo Bartoloetan apustua egin nahi dute alperrarekin Euskal Herri kalean barrena. Horretarako ibartarrek Leitzaren aurkako lehian pentsatu zuten baina hauek ez agertzean desafiora, eskualdeko edozein herriren aurka lehiatu nahi dute orain. Apustuaren eguna zehaztua dagoen arren, abuztuaren 24a, beste baldintza guztia lotu gabe aurkitzen dira: «gauza guztiak bi edo agertzen diren herrien artean hitz egingo genituzke. Hori bai, taldeak neska eta mutilen artean osatuak egon beharko dute. 12 pertsonakoak edo izango dira eta jai giroan jokatuko da lehia. Hortik aurrerakoa adostu egingo dugu».



# AHTren aurka bizikleta martxa

**TOLOSA** ● Zaldibian AHTren aurkako akanpada egiten ari dira egun hauetan. Bertatik bizikleta martxa antolatu zuten Tolosara atzokoan. Hona iristean ongietorria egin zitzaien beroarekin bizikletan mugitzera ausartu zirenei. Sagardoa, gazta, menbriloa,... indarrak berritu eta protestarekin Zaldibirako bidaia egin zuten 30 lagun inguruk. Gaur 20:00etan Ordizian manifestazioa egingo dute proiektuaren aurka. A.IMAZ

## Laburrak

### Kostara jubilatuentzat irteera asteartean

**LEABURU-TXARAMA** ● Udalak herriko eta inguruetako jubilatuentzat irteera antolatu du uztailaren 29an. Txaramatik 09:00etan irtengo dira eta Zarautzera joango dira bazkaltzera. 25 euro ordaindu beharko dira irteerara joateko. Izena emateko 943 67 59 31 edo 943 68 22 28ra deitu beharko da.

### Udalbatzaren Ohiko Bilkura 09:00etan

**IBARRA** ● Udalak jakinarazi duenez; uztailaren 29an, asteartean, 09:00etan Udalbatza osoaren ohiko bilkura egingo da Udaletxean. Gai zerrendak zazpi puntu edukiko ditu eta bertan besteak beste EB-Aralarrek aurkezturiko mozioa bozkatuko da, immigrazioaren ingurukoa.



40 lagun inguru elkartu ziren atzo Santa Krutzen eta bazkaldu ondoren bertan igaro zuten arratsaldea, herrira 18:00ak aldera jaitsi zirelarik. N. GARZIA



Tiburtzio Azpirotz sutondoan bazkaria berotzen. N. G.



Erromerirako aldarea apaindu zuten loreekin. N. GARZIA



Hagitz gustura bazkaldu zuten ermitaren itzalean. N. GARZIA

# Santa Krutz ermitaren itzalean

**Leitza »** 40 lagun inguru elkartu ziren atzo Santa Krutzeko ermitako erromerian, urtero bezala auzolanean konpondu zutela ospatzeko.

NAIARA GARZIA

Atzo Jubilatu elkarteak antolatuta Santa Krutz ermitara erromeria egin zuten 40 lagun inguruk. Aurrena meza egin zuten eta Patxi Izko herriko apaizak eskaini zuen eta ondoren bazkaria egin zuten ermitaren kanpoan.

Erromeria dela eta, asteazkenean Pilar Azpirotz serora, Karmen Azpirotz eta Karmen Agirre gora igo ziren ermita txukuntzera eta aldarean loreak jartzera. «Erratza pasatu, kristalak garbitu eta horrelako gauzak egin genituen. Loreak ere asteazkenean jarri genituen, Felipa Goikobordakoak, Sebastian Mikenekoak eta Maria Luisa ofizinakoak eman zizkiguten».

Meza joan den urtean Txokoko Lontxori eskaini zioten, baina aurten, Gloria Irurtia Jubilatu elkarteko kideak azaldu duenez, «Lontxori ere eskaini diogu, hori urtero, baina norberak nahi zuenari eskaini dio». Patxi Izko apaiza ez zen bazkaltzen gelditu, beste konpromiso bat zuelako. Bertan gelditu zirenak, norberak bere bazkaria eraman zuen eta kafea, postrea, eta edaria Jubilatu elkartekoek jarri zituzten. Kafea Musunzar tabernatik igo zuten, baina gero bertan berotu zuten, sutondoan.

Pilar Azpirotzek azaldu duenez, «lehenago ume asko ekartzen zituzten honera bedeinkatzera, baina orain ohitura hori galdu egin da». Honetaz gain, ermita «oso ongi» mantentzen dela gehitu du Azpirotzek.

### Irailaren 14ra arte

Urtean hirutan igotzen dira bertara (Ostiral Santuan, maiatzaren 3an eta irailaren 14ean), atzoko erromeriaz gain, eta hurrengo hitzordua irailaren 14ean izanen da.

## H Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**PEDRO JAUREGI ZABALA**
JAUNA



Atzo hil zen, 92 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
**– Goian bego –**

Bere anai-arrebak: Josefa (†) eta Paulino Beraza (†), Santos (†) eta Maria Jesus Albisu, Maria eta Juan Eceiza (†), Carmen eta Bartolome Elustondo (†), Mercedes (Lekaimea), Juana (Lekaimea); etxeko ilobak: Lurdes eta Miguel M. Lasa, Juan Tomas eta Luisa Garmendia, German eta Kontxi Etxeberria, Mertxe eta Jose M. Lasa; ilobak, lehengusu eta gainerako ahaideek.

Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaiteztela GAUR LARUNBATA, arratsaldeko SEIRETAN, Yurreamendiko Kapelan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**TOLOSAN**
2008eko uztailaren 26an

**Helbidea:** Etxe Oneta Baserria (Urkizu auzoa)
**OHARRA:** Gorputz Beila Tolosako Yurreamendi Egoitzan egongo da, goizeko 11:30ak arte.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza .info

2008-07-26 Eguraldia

| Goiza | Arratsaldea | Temperatura | Bihar | |
|---|---|---|---|---|
| | | 23° | GOIZA | OSTARTEAK |
| | | 16° | ARRATS. | OSTARTEAK |
| | | | BEROENA | 24° |
| | | | HOTZENA | 18° |

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.
**Lege Gordailua:** SS-0398-03
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldekohitza.info.
**Webgunea:** www.tolosaldekohitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean_publi@tolosaldekohitza.info.
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldekohitza.info.
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo @tolosaldekohitza.info.
**Anoetaldea:** 687 410 022. anoetaldea @tolosaldekohitza.info.
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea @tolosaldekohitza.info.
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea @tolosaldekohitza.info.
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea @tolosaldekohitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:** BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile | **Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil | Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Kultura

▪ **Tolosa.** Tolosa Kantari ekimena izango da, 12:00etan, Tontokaletik abiatuta, Amarozko eta Tolosako hainbat elkarteren eskutik. Musikarien laguntzaz, Alde Zaharreko kaleetan zehar ibiliko dira euskal kantak abestuz, 14:00ak aldera arte. Herritarrak gonbidatuta daude.

### Deialdiak

▪ **Leitza.** Festetako afaria abuztuaren 12an eginen da, 22:00etan, herriko plazan eta ondoren musika izanen da. Dagoeneko txartelak salgai jarri dituzte ondorengo tabernetan: Gaztañagan, Peritzan, Txokon eta Torrean (25 euro).

▪ **Tolosa.** Esperientziaren Eskolarako izen-ematea 943 224143 telefono zenbakian. Helburua adineko pertsonen garapen pertsonala eta ezagutzak zabaltzen laguntzea da.

▪ **Zizurkil.** Elipze jubilatu elkarteak Elbarrenako jaietan, irailaren 9an, antolatu duen bazkarirako txartelak salgai daude dagoeneko elkartean bertan.

### Irteerak

▪ **Tolosa.** Picos de Europa mendikatera irteera antolatu du Oargi mendi elkarteak uztailaren 31tik abuztuaren 3ra, Silla de Caballo Címero (2.436 m), Rasa de la Inagotable (2.284 m) eta Valdomingueru (2.265 m) mendiak igoz. Izen-ematea, 637 830380 telefono zenbakian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

▪ **Tolosa.** M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

▪ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.






# Udako Gazte Topaguneari agur

**TOLOSA** ● Gazte Topaguneko udako festa egin zuten atzo arratsaldean Kultur Etxean. Uztailean zehar 13 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekitaldien ondoren, iraila arte ateak itxi ditu topaguneak eta horretarako festa bat egin zuten atzo, perkusio emanaldia eta arratsaldekoa antolatu zituztelarik. Bertan topagunean parte hartu duten gazteak elkartu ziren, ikastaro amaiera ospatzeko. Topaguneak irailaren 4ean berriro zabalduko ditu ateak. A.I.




## A Agurrak



**Zorionak!**

**Izaro Zabala (Alegia).** Atzo urtebete. Zorionak familia guztiaren partetik.

agurrak
urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

